

Euskaldunen espazioa. Menditik itsasora

(The space of the Basques. From the mountain range to the sea)

Peillen, Txomin

Faculté Pluridisciplinaire de Bayonne, Anglet, Biarritz, CNRS

29-31, Cours du Comte de Cabarrus

F64100 Baiona

Hizkuntza ez da tresna hotz eta hutsa. Euskal hizkuntzak salatzen dizkigu erdarari ez dauden kategoriatxoak eta ikuspegiak. Halaber euskaraz idazten duenak ez du erdaldunak bezala mundua ikusten, hizkuntza bakoitzak bere betaurrekoak dituelako eta euskarak katalajeak, largabistak.

Giltza-Hitzak: Ezker. Eskuin. Itsaso. Mendi. Maileguak. Tabuak. Uhinak. Arkaitzak. Haizeak.

La lengua no es un instrumento frío ni vacío. La lengua vasca pone de manifiesto pequeñas categorías y puntos de vista que no se encuentran en otros idiomas. De la misma manera, el escritor euskaldun no ve el mundo como el no vasco, ya que cada idioma utiliza sus propias gafas, y el euskara sus catalejos, anteojos.

Palabras Clave: Izquierda. Derecha. Mar. Montaña. Préstamos. Tabúes. Olas. Rocas. Vientos.

La langue, un instrument qui n'est ni froid ni vide. La langue basque met en évidence des petites catégories et des points de vue qui ne se retrouvent dans aucune autre langue. De la même façon, l'écrivain euskaldun ne voit pas le monde comme celui qui n'est pas basque, car chaque langue utilise ses propres lunettes, et l'euskara utilise ses longues-vue, ses jumelles.

Mots Clés: Gauche. Droit. Mer. Montagne. Prêts. Tabous. Vagues. Roches. Vents.

GURE ESPAZIOA

Espazioa eta denbora liburuan gai hau ikertu dut, baina laburketa honekin batean nabardura eta gehigari batzuek sartuko ditut, bakarrik espazioa aipatuz.

Mendia

Euskaldun zaharrentzat mendi muga da erreferentzia.

Euskaraz ez da geografia mapetako aipamena kontutan hartzen eta jendeak, euskara ongi dakianean, dio Frantzia behera, eta Espainia behera, mendia abiapuntu eta luburu delarik.

Zuberera hain begirazalea denak erakusten du paisaian ezkerre eta eskuina izendatzen dituen erdararen alderantziz dabilala. Ibarrekerra *mendiari begira* ezkerrekoa da eta Ibareskuina *beti mendiarri so* izendatua, beraz zuberotar batentzat Bilboko ezkerrekoa (*margen izquierda*) sano itzulpen hutsa da eta zuberotar zaharrak eskuinalde esango zukeen eta berdin *margen derecha*-gaz.

Bestalde gizonentzat mendia da, andreen kezka eta erasiez urrun bizitzeko lekua, artzain eta ehiztari egoteko iheslekua. halere goi-mendiari, ekialdean, bortu esaten zaio, latin mailegu batekin.

Euskaldun idazle gehienen berezitasuna da, paisaiak ia beti lauso edo mendi gain batetik ikusten dituztela (ikus. Josean Artze, Iparragirre, Txomin Agirre eta beste).

Itsasoa

Halaber euskaldunak itsasoa sabel baten moduan ikusten du. *Itsasoa barna*, *itsasoa sartu* edo *itsasoetan zehar* ez dago biderik. Gainera itsasoa barna joatea ez da itsasoa murgiltzea, itsasoaren sakonera jaiste a. Euskaldun "zahar" olerkarien artean ere (Iratzeder, Lauaxeta) itsasoa, mendia bezala, urrundik eta xehetasun gabe orain arte ikusia da

Espazioan nora

Hizkuntza askotan espazioaren norabideak, lurburuek haizeen izendatzeko erabili ohi dira, euskaraz ere batzuetan, baina izendapen horik legortekoak dira, ezen euskaldunak aski berandu sartu ginen itsasoa. Iparra, ibararekin lotua baldin bada Mendebaldeko erdarazko vendaval-etik dator. Ekialde berriz beste hizkuntzetako "levante, levant" eguzkiarekin egina. Horiek guztiek gure hiztegia indoeuropar hizkuntzengandik itxuraz urundu zen.

Mendi hiztegiaren tabuak

Animistek diote "*gauzak aipatzen direnean, etortzen direla*". Gure hiztegia animista giro oso

batean sortu zelako eta apurbat jarraitzen duelako horren erakuslea da. Mendiko arriskuak, galbideak, oztopoak, arkaitzak eta aldapak dira.

Hain zuzen arkaitza ez baita gizonaren adiskide hoberena, hitzaren ez erabiltzeko hamar bide daude batzuk euskarazkoak harria, besteak argonezkoak potxa, botxe, gaztelaniazkoak piña/peña edo gaskoinezkoak, arroka. Noski leku izenak oso zahar direlako euskal herri guztietan aitz/atx (Zuberoan, Nafarroan Bizkaian) edo arkaitz erroko hitzak beste herrietan gorde dituzte.

Mendian aldapa ere eta amildegia ere kaltegarriak dira, halan latinari *paretem* hartuz parete (Zuberoan), frantsesari *pentard* hartuz, patar (Iparralde osoan); gaztelaniari *falda* hartuz halda/malta/malda (Zuberoan Nafarroan eta hegoaldean), alda, aldapa(erdialdeko euskalkietan). Ekialdeko euskalkietan errepide bateko aldapari kosta esaten zaio.

Nola zen antzinako izena? Lekuka gorde dena edo lekuizenetan? Ai(a), antzinako konposatuekin: igotzen den ike(Bizk.)/ ikhai, ikhaitza (Zub.) eta jaitzen den izte(Bizk.)/ iztai(Zub.), joan den mendean galduak. Bestalde eufemismo gisa zubereraz petigora eta gainetik behera eta beste euskalkietan goitibera erabiltzen dira

Itsasoaren tabuak

Beste lan batean aztertu genituen nola arrantzalek olatuak eta haizeak ahal guztiz erdal izenekin aipatzen dituzten (Eusko Ikaskuntzako kongresua, Itsasoaz, "*Hiztegiek salatzen dituzten itsasoko tekniken iturriak*"). Hona hura laburbildurik eta mendiarekin batean *Espazioa eta denbora* liburuan aztertu nuenaz ikuspegi berri bat.

Itsasoaren mugimenduak

Izpera eta izgora baldin badira, arrantzale askok, eskifaiak erdi euskaldun direlako erdal hitzakdarabiltzate marea gora eta behera,(eta marea darabila Axularrek *Gerro-n*) hegoaldean, itsas gora eta itsas behera Iparraldean.

Olatuak direla-eta aspaldikoa da aldaketa, olatu hitza gaztelaniatik *ola* hitzetik hartu bada (eta Axularrek darabila), tirain eta erresaka gaskoinetik, bago frantsesetik (Axularrek darabilana). Legortekoez ez dugu olatuen beldurik horregatik hegoaldean uhin eta iparraldean uhain esan ohi dugu.

Animismotik kanpo, badago horrelako erdal hiztegiaren nagusitasuna itsas ertzean. Zuberotar batek beti itsas bazterra edo itsas hegia esango du eta itsas bazterrekoek kosta (honela idazten du Axularrek).

Halaber geuk legortekook unzia esaten dugunari arrantzaleek erdal maileguz barkua diote. Izen

batean,ordea, batasuna dago: legortekoez eta itsas-gizonek denok itsasturiani ez du aspaldi marinel esaten baikenion. *Boga boga* bizkaitararen erruz edo?

Itsas haizeak

Hor da gehienik agertzen animismoa, ezen onaden hegoaizeaz kanpo beste guztiek itsas gizon arrunten artean erdal izenak dituzte.

- amillena (hego ekialdeko haizea)
- bangera (itsas tronba)
- bendebal (gaztelaniazko *vendeval* hitzetik)
- berdete (arotzar garaia)
- bidasoi (gaztelaniazko *virazón*, haize kiribilkaria)
- bruillarta (gaskoieraz *broillart*)
- denborale (gaztelaniaz *temporal*)
- enbata (gaskoieraz *enbat*, mendealdeko haizea)
- galerna (gaskoieraz *galerna*)
- tifo (gaztelaniaz *tifón*)
- tormenta (gaztelaniaz *tormenta*, ik. Axular)
- traganarru (tronba ireslea)
- uragan/ furikan (nazioarteko hitza)

Harrizko oztopoak

Untzi bat suntsitzen denean, Axularrek dio *hondatu*, baina arrantzaleek eta itsas-gizonek “galdu” itsasoaren barreneko oztopo gogorak daude. Hor ere erdal maileguak erabiltzen dira

arroka, itsas ertzeko arkaitza (gaskoieraz *arroca*)
basa, edo hondar meta (gaskoieraz *basa*)
grabela edo legar meta (gaskoieraz *grabela*)

Menditar ala itsastar izan euskaldunek ez dute arkaitzarekin adiskidantza handirik, nahiz poetak *Harri eta Herri* idatzi zuen, herriak bere ezinikusian jarraitzen du. Bakarrik etxegintzan, harresigintzan, trikuami eraikitzen errespetu zerbait zitzaion.

Izadiz kanpoko tabuak

Itsas gizonek, marinelek, hitz batzuk, barkuan ez dituzte behinere esan behar, zoritxarra dakartelako. Euskal itxura izan ala ez hauek dira: abade/ apez, andere, deabru, demonio, katu, sorgin. Orain datozen legeekin, beharbada, *Bruse las* eta *Europa* hitzak itsasoan arrantzalentzat tabu izango dira.

Menditarren tabu gabeko haizeak

Haizeek menditarrei ez dietelako hainbeste kalte egiten, haien, euskeraz izendatzeko, eragozpenik ez daukate.

Hona esate baterako zubereraz nola diren. Linnéren sailkapenean bezala, izen bikuna daukate, maiz. Honela kolorekin bereizten dira: euri emaileak “beltz”, euririk gabekoak “zuri” eta hotza “gorri”.

Peko aizea

Iphar beltza

Iphar aizea

Aize beltza

Aize gomia

Hegoa beltza

Hegoa xuria

Hego aizea

Ondorioz. Gure Etnografia ez da hileria, kultura baten transmititzea baizik. Hiztegi honek ongi erakusten digu izadiarekin harremanetan daudenen kezka, beldurak eta ezinikusiak. Zoritxarrez maiz erdaratik itzultzaile garelako plastikozko euskara murriz batean adierazten ditugu kaletarrok adigai horik.